


www.noaia.com Noaia !!



Bigarren eskuko azoka,
igande honetan Dema plazan



Txan Magoarekin amaituko da

Plis, Plas, Txalo ta Jolas

Zatoz merkatuak ezagutzera, gauza erabilgarri ugari aurkituko dituzu



Berrerabilera sustatuz hondakin gutxiago sortzen dugu

HILABETE / EGUNA	UDALERRIA	LEKUA	EGURALDI TXARRAREKIN
maiatza 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	18	LEZO	Saldise plaza
	24	DONOSTIA	Gipuzkoa plaza
	25	LASARTE-ORIA	Okendo plaza
	31	HERNANI	Atsegindegiko plaza
	1	ASTIGARRAGA	Barandiaran plaza
ekaina 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30	8	OIARTZUN	Done Eztebe plaza
	14	PASAIA	Gure Zumardia plaza
	15	USURBIL	Dema plaza
	21	DONOSTIA	Gipuzkoa plaza
	22	ERRETERIA	Zumardia
	29	URNIETA	San Juan plaza
	1	PILOTALEKU	Pilotaleku estalia
	8	MADALENSORO	Madalensoro pilotalekua
	14	AXULAR	Axular plaza
15	PILOTALEKU	Pilotaleku estalia	

Parte hartu!
Erreserbatu salmenta / truke postu bat Norbanakoak, elkarteak, ikastetxeak, dendak... guztientzat egongo da lekual!

Salmentak Trukeak Opariak Bilaketak
Hondakin gutxiago sortzeko informazio gune berezia

INFORMAZIOA eta ERRESERBAK
943 67 02 49
www.merka2sanmarcos.org

ORDUTEGIA: 10:00 - 14:00



ORNITORRINKUS

Maialen Lujanbio, Judith Montero eta Xabier Erkizia

Ekainak
21 larunbata
22.30h
Usurbilgo dema plazan



Euria egitea bada emacaldia Udarragi ikastolan egiteko da.

Albisteak iruditan !!

Garraiolarien greba dela eta, gasolinik ez

Igande gauerdian hasi zen garraiolarien grebaren eragina handik gutxira nabaritzen hasi zen. Bereziki, irudian agertzen den bezala, hainbat gasolindegietan. Urbil merkatalgunekoan esaterako, 98 zenbakidun berunik gabekoa izan ezik, postu guztietako gasolina amaitu zen astelehen arratsalderako. Ibilgailu mugimendua bazez inguru hartan, baina gasolindegi hartara joateko egindako ahalegina alferrikakoa zen. Askok buelta eman eta beste norabait joan behar izan zuten. Irudi bera errepikatu zen beste hainbat lekutan ere. Greba luzea eta gogorra izango dela iragartzen zuten.



ASTELEHEN ARRATSALDEAN JARRI ZUTEN TXARTEL HAU URBILEN, KASTELLANAZ...

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariako koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publicitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustín Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Mainer Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Intza Salsamendi, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza, Zirkuitu Ibillidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

KRONISTAK KALEJIRAN	6. OR.
LARUNBATEAN, MANIFESTAZIOA	8. OR.
TXAN MAGOAREKIN SOLASEAN	10. OR.
UEMA EGUNA AZPEITIAN	12. OR.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

LATAILLADE **ITURGINTZA**

GASA BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aritzitxko 8. behea - 943 363 348 - 609 888 021

txirriStra

KONTSEJUZARRA 13
 943 360 466

pintxoak
 ogitartekoak
 plater konbinatuak

TABERNA



UNAI AGIRRE

Larunbatean Donostiara

Azkenaldian guztiak daude kexaka. Duela bi aste, AHTren kontrakoak. Lehengo astean berriz, EHNEko baserritarrak ez ziren ados jasan behar dituzten baldintzekin. Eta datorren astean, berriz, erraustegirik nahi ez dugunok egingo dugu protesta. Baina azkenean, arazo berdinen alde ezberdinak dira.

Urteetan zaborraren kudeaketa kaxkarra egin dute, eta zabortegeiek gainezka egin dutenean, erraustegia ezinbestekoa dela sinestarazi nahi digute. Argi utzi dugu bilketa egokia egiten ez den bitartean, emaitza egokirik ezingo dela lortu. Eta hori egin ez, eta eko-marketing kanpainan sartu zaigu Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoa. Donostiako zati bateko bizilagunen zati baten zaborraren zati organikoaren zati begetalaren sukaldatu gabeko zatia biltzeko ahaleginetan dabilta "Amara konposta" kanpainan. Baina modu esperimentalean bakarrik. Urteak pasa dira hiri osoetan jende guztiaren frakzio organiko guztia biltzen dela, emaitzak ezin hobekak jaso direlarik. Erraustegia ere modu esperimentalean nahi al dute egin?

Argi dago borondate politikoa falta dela hemen. Eta

oraindik larriagoa dena, erraustegirako diru iturria eten-gabe irekita duten bitartean, atez ateko bilketa egiteko behar den dirua (askoz kopuru txikiagoa) eskale moduan lortu behar dute horretan sakondu nahi dutenek. Izan ere, jakin badakite Gipuzkoan atez ateko bilketaekin zaborra biltzen hasten bagara, egingo ez duten erraustegi horrek erregairik gabe geldituko zela. Eta erraustegia industria bat da, eta industriak dirua ateratzeko sortzen dira. Gure ingurugiro eta osasunak ordainduko zituzten haien etekinak, gure seme alaben osasunak, gure baratzak, gure elikagaiak, gure airea, gure bizimodua...

Horregatik larunbatean Donostiara joan behar dugu erraustegia ez dutela egingo argi uzteko, zaborraren bilketa egokiak ez bakarrik diruz lagundu baizik indartu eta bultzatu behar dutela esateko. Azken finean gure dirua baldin bada, guk ere zer esanik ez al dugu izango? Larunbatean Donostian baserritarrak, seme-alabak dauzkagunak, toki osasuntsuan bizi nahi dugunak, Zubieta maite eta txikitzea nahi ez dugunak bertan ikusiko dugu elkar. Hitzordua Donostiako bulebarrean, arratsaldeko 18:00etan dugu.

Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai - Joxe Piñas - Unai Agirre

Ika-mika !

ANV liskar bila

Maiatzaren 27an, arratsaldeko 19:00etan, udal batzarra burutu zen. Eusko Alkartasuna ez zen bertaratu. Hainbatek galdetu digute ez azaltzearen zergatiaz eta idatzi honekin publiko egin nahi ditugu gure arrazoiak.

Ez da azken momentuan harturiko erabakia. Erabaki konszientea eta denbora luzean hausnartua izan da. Gu ez azaltzea PROTESTA ekintza izan da:

Protesta, legealdi osoan gauzatzen ari diren udal plenoak ia edukirik gabekoak direlako, mozio sozio-politikoek udal gestio gaiek baino pisu gehiago dutelako. Honek guztiak adierazten du udal martxa geldirik dagoela, makaltasunez, geldotasunez funtzionatzen dutela agintari berriek. Eta plenoak nolabait osatu behar, eta hala! Mozioa hemendik eta mozioa handik!

Protesta, alkateak, kargua hartu zutenean, publikoki, gardentasunez eta partehartzea bultzatuz arituko zela agindu bazuen ere, ez delako bere hitza betetzen

ari. Alkatearentzat gure iritziak eta egiten dizkiogun galderak hutsaren hurrengoak direlako, ez digu erantzuten, purrustadak nagusi, irrifar lotsagabeak, ironiaz beteriko komentarioak.

Herritarrak konturatu dira horretaz. Askok beren auzo edo etxeetan zuten arazoa konpontzeko alkatearekin bildu nahi izan dute, baina, etsipenera heldu direnak ugari dira ez dagoelako hitz egiteko zita bat lortzeko modurik.

Protesta, plenoak probokazio tresna gisa erabiltzen dituelako ANV. Horren lekuko azken plenoa. Usurbilen, "mazio etikoa" aurkezten ez dela-eta ezinegonez dago ezker abertzalea. Ezin aitzakia lortu bere amorrua kaleratzeko eta "anti mozio etikoa" aurkeztu; liskarra lortu nahi nola edo hala. Baina joko horretan ez gaituzte aurkituko. Alkatearen bere egarri mediatikoan ez gaitu bidelagun izango.

Horrez gain, bigarren mozio bat aurkeztu, batekin nahikoa ez balitz.

Bigarren hau, palestinar herriaren aldeko atxikimenduaren irudipean aurkeztu, baina benetan, israeldar herriaren kontrako manifestu "nazia" eta "antisemita" izan. Israeldar produktuei, judutar kulturari eta hauekiko edozein harremanei boikota eskatuz. Orain dela 20 urteko garaiak gogoratzen dizkigute. Gogoratzen al duzue "frantsez produktuei boikota" kanpaina?

Guk, udalgintzaz aparte, baditugu beste eginbeharrak, gure lanak, gure familiak. Ez gaude denbora alferrik galtzeko, gutxiago zirko batean bihurtzen ari den udal honetan.

Udalgintzan jarraituko dugu, baina era arduratsu batean, era konstruktibo batean, eta hori bermatuko duen modu, gune eta uneetan.

Eusko Alkartasuna alderdiko zinegotziak: Luismari Ormaetxea, Salome Portu eta Josune Urquia.

79 haur bilduko dira Udajolasen

Udalak eta NOAUA! Kultur Elkartek bideratu dute aurtengo Udajolas, uztailan martxan izango den udaleku irekia. Izen-ematea aurreko astean amaitu zen eta guztira 79 izan dira animatu diren gaztetxoak. Uztailaren 3an hasiko da Udajolas baina hori baino lehen, bilera batera deitu dituzte haurren gurasoak. Bilera hori ekainaren 18an egingo da, Udarregi ikastolako patioan, arratsaldeko 17:00etan.

79 haur animatu direnez, 10 talde osatuko dira. Talde bakoitzeko begirale bat izango da eta hauek guztiak koordinatzen, arduradun bat. Beraz, 11 begiraleren arreta izango dute izena eman duten haurrek.

Uztailaren 3an hasiko da

Uztailaren 3an hasiko da Udajolas eta uztailaren 30ean amaituko da. Astelehenetik ostiralera, goizeko 9:30etik eguerdiko 13:30era.

Zubietan, uda osoan

iraungo du Udako Txokoak

Aurten Tkakun elkartekoak arduratuko dira Zubietako Udako Txokoetaz. Usurbilen ez bezala, Zubietan bi hilabetez luzatuko da udako aisialdi eskaintza. Izen-ematea maiatzaren 27an bukatu zen eta, uztaileko, 21 haurrek eman dute izena. Abuzturako, 17 izan dira animatu direnak. Udako txokoak uztailearen 1an hasiko dira eta abuztuaren 29an bukatuko dira. Haurren zaintzaz bi begirale arduratuko dira.



EGURALDIA TXARRA DENEAN, UДАРREGI IKASTOLA IZANGO DA UDAJOLASEKO LAGUNEN ATERPEA.

Ekainaren 16an amaituko da Aginagako udako txokoetan izen-ematea

3-12 urte arteko haur eta gazte-txoei zuzendutako txokoak antolatu dituzte Aginagan datorren hilerako. Eskaintza uztailearen 1etik 30era luzatuko da eta ordutegia hauxe izango da, 9:00-13:00. Izen-ematea zabalik dago ekainaren 16ra arte, honako telefono zenbaki hauetan: 676 163 506 (Dolo) eta 600 484 948 (Manuel). Txokoetan parte hartuko duten egun kopuruaren arabera bi prezio mota finkatu dituzte antolatzaileek. Hilabete osoz, izena ematearen truke 70 euro ordaindu behar dira. Hamabostaldi batean bakarrik egoteagatik, 40 euro. Programatuko dituzten ekintzen artean, astero egun osoko irteerak egingo dituzte.



3-12 URTE ARTEKO GAZTETXOAK BILDUKO DITU AGINAGAKO UDAKO TXOKOAK.

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Kale nagusia, 10
Telf. 943 37 33 48
943 37 09 13

Ojandegia - Gozotegia

LABE-GOXO

Xukin Andoni Errazkin

igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

☎ 663 08 76 71 • USURBIL

TXOKOALDE

ALOÑA LOIDI

11 urte dagoeneko



Duela bi aste, ekainak 1, 11 urte bete dira Txokoalden uholdeak izan zirela. Ikusi edota bizitu genuenak ongi gogorazten dugu uraren indar ikaragarriak egindako triskantza.

Etxe askotan ura sartu zen, eta ez ura bakarririk, hark zekarzkien harri, egur, hondar eta abar ere bai. Izan ere uholdea ez zen ibaia hazi zelako izan, indar guztiz menditik behera etorri zelako baizik. Olatu baten moduan etorri zen ura eta bidean harrapatu zuen guztia garraiatu zuen.

Errepideko asfalto urak altxa eta eraman zuen, beira eta zabor ontziak ere igeri balekitez bezala eraman zituen eta zenbait ibilgailu ere mugitu egin zituen. Bazirudien gainera ura amaigabeko iturri batetik zetorrela eta beldur handiko momentuak pasatu genituen.

Urak alde egin zuenean harrigarria zen harri, hondar, egur eta abarrez osaturik geratu zen hondakin pila. Toki askotan metro baterainoko altuera arte pilatu zen.

Badirudi aurtengo ekainaren bata duela 11 urte gertaturikoaren "omenalditxo" bat egin nahi izan duela, zeren goiz-goizetik hasi zuen euria eta ez zuen geratu nahi.



Villabonan, Iruran eta abarretan Oria ibaiak gainezka egin zuen eta 1997an Txokoalden egin zuen adinako txikiziorik egin ez bazuen ere, jende asko ikaratuarazi zuen.

Txokoaldeko uholde haiek pasatu ondoren, Lasarte parean Oria ibaia zabaldu zuten eta lehen Txokoalde parean ibaiak askotan egiten bazuen gainezka, ordutik aurrera badirudi gutxiagotan ateratzen dela ura ibaitik kanpora.

Ea ez dugun berriz horrelako sustorik izaten.

KALEBERRI

BEGOÑA REKONDO

Loturak



Igandean, ekainaren 8an, Alkartasuna Kooperatibaren jaia ospatu zen. Orain dela 10 urte Portu zen, baseritarren beharrei erantzuteko.

Egia esan ez dut ohiturarik idi demak ikusteko, baina etxean nengoenez tartetxo bat hartu nuen ikusteko.

Idiek buelta eta buelta, plazak egiten ari zirela, niri haien gorputzek lotzen zituzten uztarrak ikustean, hainbat lotura etorri zitzaizkidan burura. Idien arteko lotura, ezinbestekoa bere lana egiteko, bai soroan, bai idideman. Badugu ere gauzarekiko lotura handia.

Adibidez, ganbaran denboraren hautsak estali dituen altzariekiko lotura edo, *tokadisko* zahar batek ekartzen dizkigun oroitzapen sentimentalekikoa. Lotura pertsonalak, batzuek onak baina beste batzuk askatasuna kentzen digutenak.

Baina idi demaz eta baserritarrez, eta loturez ari naizenez, uste dut kalekumeek behar dugula uztarri bat, lotura bat edo batze bat baserriaren munduarekin. Izan ere elkarren beharra dugu eta halako jai bat loturaren zati bat izan daiteke.

ATXEGALDE

MAIALEN UNANUE

Ekaina

Iritsi da ekaina, eta iritsi dira azterketak!

Behin hala esan zidan norbaitek: "Ez ahaztu unibertsitatean egoteko arrazoi bakarra azterketak direla". Noski, arrazoi guztia zuen: guk aukeratu genuen ikasten jarraitzea, guri gustatzen zaigun horretan, eta beraz, kezatzeko arrazoi gutxi dugu. Hala ere, ezin hotzikara bat sentitzea saihestu: ordu gutxitan erabakiko da ikasturteak zerbaitetarako balio izan digun ala ez.

Unerik latzenak maiatzaren amaiera aldean izaten dira, garai horretan pilatzen baita irakasle ezberdinek bidalita-ko lan mordoa. Ai lanak! Zenbat denbora kentzen diguten! Noski, lanak egin gabe ezin gaintitu eta lanak eginez gero, denborarik ez apunteak prestatzeko!

Ikasleok, ordea, uste dut bizirauteko teknikak ongi jorratuak ditugula, batez ere, gauzak azken unerako uzteko ohitura dugunok. Denbora gutxi izatearen presiopean lan egiteak motibatzen gaitu eta ikastera behartzen, inoiz pentsatuko ez genukeen bezala.

Beraz, lagun maiteok, animo eta zorte on, herriko festak ere bertan baitaude eta azken txanpa honetan saiatzeko ak merzei du!



KALEZAR

MAIDER MAKAZAGA

Garraiolarien greba, denon greba



Pasa den ostiralean Urbil merkatal gunera joatea pentsatu eta hara iristean jende ugari erabaki bera hartu zuela ikusi ez nuen ba!! Hura zen hura jendearen emana. Ez nuen ulertzen zer zela eta zebilen hainbeste jende; ez nekien zerbait oparitzen zuten, ikustea merezi zuen norbait zetorren merkatal gunera edota prezioak bapatean izugarri jaitsi ziren!! Baita zera ere; jendea produktuak erosi eta erosi zebilen etxeko despentsak betetzeko, bada ezpada ere, garraiolariak aurreikusitako greba zela eta.

Hitz labur hauek idazten nabilen honetan, ordu eta erdi falta da grebari hasiera emateko, gauerdian hasiko baita. Inork ez daki zenbat iraungo duen baina jada Fomentoko ministeritzan errepideko garraio zuzendari den Juan Miguel Sanchezek gaur eman duen prentsaurrekoan hitz eman du, aste erdirako neurri potenteak aurkeztuko dituztela, sektore horretan dabiltzanei laguntzeko. Zapaterok berriz asteburu honetan esan du arrazoizkoak eta zentzuzkoak diren neurri guztiak hartuko dituela Gobernuak eta grebak sortu ditzakeen ondorioei aurre egiteko prest dagoela.

Zergatik ez dituzte neurri horiek jada plazaratzen grebaren zain egon gabe? Ezinbestekoa al da grebara deitzea, istiluak



sortzea, jendea kasu askotan lanik gabe geratzea eta beste hainbeste gauza pairatzea hauek ohartzeko onartezina dela urtea hasi denetik erregaiak %20ko igoera jasan izana?

Eta, zer uste dute arazoa garraiolariarentzat bakarrik dela? Gainontzekoek ez al gara ari jasaten igoera hori ala? Zer egingo dute, beti bezala, betatxu bat jarri eta kitto?

Garraiolariak laguntzak eman behar zaizkie neure ustetan eta neurri bereziak eduki beharko lituzkete erregaiari dagokionean. Erabat ados. Baina arazoa hemen denona da.

AGINAGA

MARIA ANGELES ARRUTI

Gurasoei oroipena



Mila bederatzirehun eta berrogei eta zortziki ekainaren 12an, San Antonio bezperan ezkondu ziren gure gurasoak Lezoko Santo Cristo parrokan. Dagoeneko 60 urte elkarrekin. Esatea errazago da bai. Bost seme-alaba ekarri zituzten mundura, 9 biloba eta birloba bat, bestea bidean ere badute. Edertasun benetan hainbeste urte elkarrekin igaro ondoren ospatzeko gai izatea. Guk familiak eskerak ematen dizkiogu Jainkoari hainbeste urtetan beraiekin izateko aukera izan dugulako.

Zenbat neke, izerdi eta momento zail baina, onak ere izan eta eman dizkiogu. Orain urteetan gora (91-81) dihoazenean atsedenera iritsita daude, baina bizirik eta buru onarekin daude. Besarkadak eta muxuak familia osoaren partetik.



ZUBIETA

DENIS ELORTZA

Zubietako txapeldunak

Udaberrian loreak nola, bada, azkenaldi honetan hala azaleratu zaizkigu txapeldunak Zubietan. Bertso kontutan ez zaigu bada Euskal Herriko gazteen finalerako sailkatu Asier Azpiroz, artean ere herrian bertan bertso saiorik egin gabe dagoena. Bejondeiala, plaza gizon, eta zorte on 21eko finalean!

Eskola txikikoek ere txapela jasotzeko moduko lana egin dute kultur aste arrakastatsua antolatzen; milesker! Eta kultur aste horri esker deskubritu dugu bonsaien artean punta-puntakoak diren adituen elkarte dugula herrian. A zer gozatua hartu genuen euren bonsai erakustaldiarekin.

Eta ikusgarria, era berean, Olatzen aldeko kantu afariaren aitzakiarekin, frontoian bildu zen jende andana. Eta pilota elkarteko sukaldari eta zerbitzariak, horiek bai primerakoak; zuri-urdinez janzten diren horien aldean...

Azkenik, erraustegiaren kontra ari diren herritarrek ere zoriondu nahi nituzke baina ziur nago euren lan esker aitortzeko modurik onena zubietar guztiok larunbateko manifestaziora joatea dela. Eta zabor gutxiago sortzea eta birziklatzea eta konpostatzea...



Alternatiben alde eta errausketaren aurkako manifestazioa egingo da larunbat honetan Donostian

Alternatibak martxan jarri, errausketarik ez. Hori izango da larunbat honetan egingo den manifestazioa zabalduko duen lema. Arratsaldeko 18:00etan abiatuko da manifestazioa Donostiako Boulevardetik.

Errausketaren Aurkako Herri Plataformen Koordinadorak egin du larunbateko manifestazioaren deialdia. Errausketa sistemaren aurrean, alternatibak badirela aldarrikatu nahi dute deitzaileek. Sindikatu hauek bat egin dute larunbateko manifestazioarekin: LAB, ELA, ESK, CNT, CCOO, EHNE eta STEE-EILAS. Talde ekologistek ere babestu dute deialdia: Eguzki, Ekologistak Martxan, Greenpeace, Haritzalde, Añorgako Ingurumen Komisioa. Zubietako Herri Batzarrak ere bat egin du deialdiarekin.



HIRI HONDAKINAK KUDEATZEKO JARDUNALDIETAKO IKASLEAK, BISITAN. Eusko Ikaskuntzako Asmoz Fundazioak eta San Markosko Mankomunitateak hiri hondakinak kudeatzeko jardunaldiak antolatu dituzte. Parte hartzen ari direnak Usurbilen izan ziren bisitan aurreko asteartean. Atez ate egingo den hondakin bilketa proiektua zertan den azaldu zitzaizen. Xabier Mikel Errekondo alkatea, Imanol Azpiroz San Markosko Mankomunitateko lehendakariordea eta Jordi Colomer San Markosko teknikari-aholkulariarekin batera bildu ziren udaletxean.

Igande honetan, bigarren eskuko azoka

Erabilitakoa zaborretara botatzea eragotzi eta berrerabilpena sustatu, horiek dira igande honetako bigarren eskuko azokaren helburuak. San Markosko Mankomunitateak antolatu duen azoka goizeko 10:00etan hasi eta 14:00etan amaituko da.

Erosi eta saldu, biak egin daitezke igandeko azokan. Bigarren eskuko zerbait saldu nahi duenak, badu horretarako aukera. Hori bai, alde zuzenetik eman behar du izena. Telefonoz, 943 670 249 zenbakira deituz, astegunetan 9:00-18:00 artean deituta. Internet bidez, atari honetan: www.merka2sanmarcos.org



DEMA-PLAZAN EGINGO DA AZOKA, 10:00ETATIK 14:00ETARA.

Atez ateko zabor bilketari buruzko hitzaldiak

EKAINAK 16, ASTELEHENA
19:30etan Aginagako ludotekan.

EKAINAK 18, ASTEAZKENA
Puigpunyent herriko (Mallorca) esperientzia, bertako Udaleko zinegotzi Miquel Ramonen eskutik.
19:00etan Udarregi ikastolan.

EKAINAK 19, OSTEGUNA
18:30etan Santuenea Auzo Elkartean eta 20:00etan Sutegin.

EKAINAK 28, LARUNBATA
17:00etan Zubietako frontoi atzeko lokalean.

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Beste ehun urte baietz

Alkartasuna Baserritar Kooperatibaren ehungarren urtemuga ospatzeko ekainaren 8an antolatu zuten jai eguna ez zen nolana hikoia izan. Aspaldian areriotik gehiago izan duen eguraldiak lagundu zuen eta herritarrek ez zuten hutsik egin.

Eguerdi partean zazpi kirol taldek elkarren artean hainbat euskal jokoetan indarrak neurtu zituzten. Igeldokoak nagusitu ziren, Egia, Antiguo, Tolosa, Ibarra, Hernani eta Usurbilgo taldeen aurrean.

Bazkaltzeko antolatzaile, bazkide zein gonbidatuak Saizarren bildu ziren. Bertako mahai nagusia bete omen zuten, hirurogei lagunetik gora batu ziren eta. Goizean Igeldokoak txapel-dun izendatu bazituzten, arratsaldean ez ziren atzean geratu idi-dema saioa eskaini zuten hiru lehiakideak. Gutxienak 40 plaza egin zituen, gehienak 46. Garailea, Itziarko Ixama izan zen. Eta saioa ikustera hurbildutakoak goizean baino gutxiago izan arren, Alkartasuna Baserritar Kooperatibakoei helarazi dizkieten iritzien arabera, ikusleak gustura ziren, maila handiko lehia izan zela baitzioten.



IRUDIAN, MENDEURRENEKO JAI EGUNEAN OSPATUTAKO IDI-DEMA PROBA. 46 PLAZA EGINDA, GARAILEA ITZIARKO IXAMA IZAN ZEN.

Sagastien zaintza eta polinizazioa, aztergai

“Sagastien zaintza udan”,
ikastaroa

Hizlaria: Aitor Etxeandia.

Eguna: ekainak 14, larunbata.

Ordua: 9:30.

Tokia: Sutegi.

“Erlezaintza; nola lortu produktuak eta zertarako. Polinizazioa”

Hizlaria: Elias Otegi.

Eguna: ekainak 21, larunbata.

Ordua: 9:30.

Tokia: Sutegi.

Xiba herri kirol lehian, Igeldokoak nagusi

Alkartasunaren festarekin batera, Xiba herri kirol lehiaketaren kanporaketa jokatu zen herriko frontoian. Igeldo izan zen nagusi eta usurbildarrak bosgarren postuan geratu ziren.

Euskal Herriko zazpi lurraldeetako taldeak biltzen ditu Xiba ekimenak eta bi helburu ditu: euskal joko eta jolasak berreskuratu, gaurkotu eta zabal-tzea; eta bestetik, herrien arteko harremanak sustatzea.

Ekainaren 27ko asteburuan jokatu-ko dira Xiba herri kirol lehiaketaren finalak Idauze Mendin (Zuberoa), Euskal Herria Zuzenean festibalarekin batera.



USURBILDARRAK, SOKATIRAN JO ETA FUEGO. BOSGARREN IZAN ZIREN GURE ORDEZKARIAK.

Plis, Plas, Txalo ta Jolas amaitzeko, Txan Magoaren magia erakustaldia

Plis, Plas, Txalo ta Jolas ekimenari lotutako azken saioak ukitu magikoa izango du. Txan mago ezaguna baitator. Jarraian datorren elkarrizketan aipatu bezala, berrikuntzekin, adin tarte guztiei zuzendutako emanaldiarekin liluratzeko prest. NOAUA!k antolatutako ekitaldia, ekainaren 19an frontoian izango da, 18:00etik aurrera. Sarrera doan.

NOAUA! Noiz eman zuen Xanti Anterok Txan Magoan bihurtzeko lehen pausoa?

Txan Magoa. Xanti Antero, lehenik, Xanti Magoan bihurtu zen. Eta gero Txan Magoan. Ehun urte zabalik daraman taberna bateko tabernarien semea naiz. Han ezagutu nuen lehen magoa. Hamar bat urte nituela, igande gau euritsu batean. Aitari kartak eskatu zizkion eta joko oso harrigarria egin zidan. Gugandik bost bat metro-ra esekita zegoen alkondara bateko patrikan eskua sartzeko esan zidan. Eta hantxe zegoen karta bat. Orduan esan nuen, hori zela egin nahi nuena. Hala ere, 25 urte pasa behar izan ziren, mago alternatiba hartzeko. Lagunei magia egiten nien.

TXAN MAGOA

“Ikusleak emozionatzea lortzen badugu, magia saioa ez dute inoiz ahaztuko”

Autodidakta izan naiz, ahalik eta koadrilan sagardotegi batera afaltzera joan, magia egiten hasi eta bezero ugari hurbildu ziren artean. Tartean bazen bat esan zidana etxean magia liburua zuela, emango zidala. Liburu dendatan egon ezin zuen liburua izan



ADIN TARTE GUZTIENTZAKO EMANALDIAK ESKAINI ARREN, MAGIA HELDUEK SORTU ETA HELDUENTZAKO DELA IRIZTEN DIO TXAN MAGOAK.

arren, berak saltoki batean erositakoa zuten. Informazio pila zegoen bertan.

N. Zein modutan ulertzen duzu zuk magia?

T. M. Sukaldariak bezalakoak gara. Elikagai desberdinak hartu eta nahastu ditugu oholtza gainean. Benetako magia ikusleek, bakoitzak bere moduan, barneratzen dutena da. Ikuslegoa emozionatzea lortzen badugu, magia saioa ez dute inoiz ahaztuko.

N. Magiak ba al du adinik?

T. M. Bai. Magia ez da haurren kontua, helduena baizik, helduek sortutakoa da. Logikarik gabeko planteamendu batetik abiatuta, ikuslegoaren logika apurtzen dugu eta ondorioz, ikuslegoa defentsarik gabe geratzen da. Gizarte logiko batean bizi garenez, akzio baten aurrean erreakzio logikoak izaten direla dakigu. Sei urte arteko haurrak aldiz prelogikoak dira, logika oso gutxi landua dute. Oso

zaila da haiek emozionatzea. Baina fantasiatzeko munduan bizi dira, eta magoa haientzat mundu horretako beste elementu bat da. Horregatik, askoz errazagoa da haurrei baino helduei magia egitea.

N. Magia saio baterako, zer elementu behar izaten dituzu?

T. M. Aparatu sofistikaturik ez dute erabiltzen. Eskuekin egindako magia gustuko dut. Haur eta gaztetxoei zuzendutako saioetan, haiek ezagutzeko moduko elementuak erabiltzen ditut; soka, papera... Txertatzen ari naizen aldaketak tarteko, Usurbilgo saioan, joko gehienak berriak izango dira. Magia oso ikusgarria egiten dugu, grafikoa, musikala, poetikoa eta ez oso korapilatsua. Adin tarte guztiei zuzendua. Haurrek nagusiak lagunduta joan daitezela, ikuslegoaren kultura ikasten ari baitira.

N. Originaltasun eta berrikuntza bila hasita, magiak ba al du mugarik?

T. M. Hamaika magia daude. Bakoitzak bere lekua eta unea ditu, horren arabera, magia bakarra egiten da.

TXAN MAGOA

“Hiru minutuko efektu bat lortzeak, egunero bizpahiru orduko lana eskatzen du”

Eszenako saloiko magia egiten dut eta saio bat prestatzerakoan, lehenik nik liluratu behar dut. Oso garestia da, baina ez materialengatik bakarrik. Hiru minutuko efektu bat lortzeak, denbora luzez, egunero bizpahiru

orduko lana eskatzen baitu. Kalitatezko saioak izaten ahalegintzen gara.

N. Leku askotara zabaldu duzu zeure magia?

T. M. Non ez naizen ibili galdetzea errazagoa litzateke. Antzoki, elkarte, gaztetxe eta onkologokietan. Baita kamioi gainean, basamortuan, oiha-nean... Horietako asko, saio politenak, muxutruk egindakoak dira, jendeak asko eskertzen baitu. Estatuan eta atzerrian ibilia naiz, baina Euskal Herria nahiago dut. Hemendik ere joango naiz, baina neure hitz magikoak, “Artxila murtxila”, hor geldituko dira. Euskararentzat ere puntu bat da.

“Usurbil bezalako herri asko ez daude”

NOAUA. Ez da Usurbila zatozen lehen aldia. Hemengoa, zer moduzko publikoa da?

Txan Magoa. Oso jende jatorra. Arrazoi nagusietako bat euskara da, alde handia egoten baita komunikazio mailan. Herri euskalduna izanik, euskaldun petoan den publikoaren aurrean, ikuskizunak oso arinak ateratzen dira. Honelako herri asko ez daude.

Patxin eta Potxin pailazoak ostiral arratsaldean hurbilduko dira Zubietara

Datorren larunbaterako iragarrita zeuden Patxin eta Potxin pailazoak. Plis, Plasen karteletan eta iragarrietan hala jasota dago. Baina azken orduan, egunez aldatzea erabaki da. Larunbatean beharrean, ostiralean arituko dira, ekainak 13, Zubietako frontoian. Arratsaldeko 16:30ean hasiko da Patxin eta Potxinen ikuskizuna, “Hirian ze berri?” izenekoa.

Potxin eta Patxin artistak tren bidaia baten ondoren hirira iritsiko dira. Lanak izango dituzte hiritarren bizimodura egokitzen. Suhiltzaileen jarduna ezagutuko dute, zerbaitetan lagundu nahian une arriskutsuak igaroko dituzte.

Gogoan izan Patxin eta Potxinen saioa ostiral honetan izango dela, arratsaldeko 16:30ean, Zubietako frontoian.



PATXIN ETA POTXIN PAILAZOAK “HIRIAN ZE BERRI?” IKUSKIZUNA ESKAINIKO DUTE OSTIRAL HONETAN ZUBIETAKO FRONTOIAN.

**MIKEL
IZAGIRRE**
ELEKTRIZITATEA
943 365 095
609 068 111
GOIZ ARGI ETXEA, 37. KALEZAR

Otar-Goxo
Elkarguak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

MAHUKA
ETXEBESTE KALEA, 3. 943 361 106
Hemen aurkituko duzu
gizon eta emakumezkoen
MODAKO ARROPA

UEMA Eguna, larunbat honetan Azpeitian

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea osatzen duten 52 udalerriren (tartean, Usurbil) eta euskaltzale ooren topalekuan bihurtuko da Azpeitia, larunbat honetan, ekainak 14. Egun osorako antolatu diren ekitaldien bidez, udalerrri euskaldunek euskara nagusi izango duten lur-gunea osatzea aldarrikatuko da. Duela hamar urtetik Usurbilgo Udala Mankomunitateko kidea da.

“Sustraiak galtzen ez utzi. Euskarari eutsi” lemapean antolatu dute aurten-go UEMA eguna. Azpeitian ospatuko da larunbat honetan, ekainak 14. Hain zuzen, bertako Udala mankomunitatean sartu berria baita, Otxandio eta Mallabiarekin batera. Ospakizuna eta aldarrikapena uztartzen ditu, sortu zenetik Euskal Herri osoko euskaltzaleen erreferentzia bilakatu nahi izan duen egunak.

USURBIL, UEMAN

“Usurbilgo Udalak iaz bete zuten UEMAN sartu zeneko hamargarren urtemuga”

1990ean hazia Lizartzan erein eta urtebete beranduago Aizarnazabalen osatu zen mankomunitateak pasa den udazkenean berriro zuten zuzendaritza batzordea. Garai berean, Usurbilgo Udalak iaz bete zuten UEMAN sartu zeneko hamargarren urtemuga. Bertan bizi den biztanleriaren hiru laurdenak euskaldunak direnean definitzen dute udalerrri bat, udalerrri euskaldun gisa.

Etorkizunari begira

Herritarren bizitza sozial zein pribatua euskalduntzeko urratsak ematea edota udalerrri euskaldunen garapen sozioekonomikoa eta soziokulturala bultzatzea dira aurrean dituen erronketako batzuk. UEMAtik honela laburbiltzen da aurrera begira dituzten erronkak: “Euskarak, biziko bada erdarek bezala nagusi izango den lur-gunea behar du”. Alde horretatik,



1991N OSATU ZEN UEMA, UDAL EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA. USURBIL 1997AN SARTU ZEN UEMAN.

Iparraldeko herrietara hedatzeko nahia ere erakusten du erakundeak.

Euskal Herri osoko euskaldunentzat, euskaraz bizitzea da euskal nazioa egituratzeko tresna garrantzitsuetakobat, UEMAREN arabera.

Larunbat honetan, Azpeitian

Egun bete ekitaldi prestatu dute antolatzaileek.

09:00 Pilota partidak Frontoi Txikian. Lea-Artibai – Azpeitia.

11:00 Herrialdekako herri kirol lehia, plazan.

11:30 Harrera instituzionala udal-etxeako pleno aretoan.

13:00 Ekitaldia plazan (bertsolariak, dantzariak...).

14:30 Bazkaria Berdura Plazan. Txartelak salgai daude UEMAKO udal-letan eta Azpeitiko ohiko lekutan. (Prezioa: langileak 15 euro, eta langabetu eta ikasleak, 10 euro).

15:30 Haur parkea Herriko Plazan (puzgarria, joko ekologikoak...).

17:00 Txotxongiloak, Antzezkiuzina Txotxongilo Taldearekin udal-etxe azpian.

18:00 Dantzaldia plazan. Herriko kaleetan zehar, Botapa batukada.

23:00 Kontzertua.

Egun osoan, txosna egongo da herriko plazan eta Kontseiluaren era-kusketa udal-etxe azpian.

Euskara ikasten aritu

direnentzat, dirulaguntzak

Euskara ikasi dutenentzako dirulaguntzak banatuko ditu Udalak. Oinarriak ekainaren 2ko Aldizkari Ofizialean (GAO delakoan) argitaratu ziren:

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2008/06/02/e0806360.htm>

Aurtengo deialdian, iazkoarekin alderatuta, berrikuntza nabarmena egon da. Izan ere, Udaletik oso garrantzitsutzat jotzen da herritarrek euskara ikastea.

Horrexegatik hain zuzen ere, 2007-2008 ikasturtean herritarrei euskara ikasteko ematen zaizkien dirulaguntzen kopuruak nabarmen igo dira:

-Euskara ikasleek: matrikula-kostuaren %80a jasoko dute (iaz %60a).

-Euskara ikasleak, 12 urtetik beherako seme-alabak dituzten gurasoak: matrikula-kostuaren %100a (iaz %80a).

-Euskara ikasleek (langabetuek): matrikula-kostuaren %100a (80a).

-UEUko ikasleek: matrikula-kostuaren %60a jasoko dute.

Eskaerak aurkezteko epea ekainaren 30ean amaituko da (egun hau barne).

Ostiral honetan "Kalean uso, etxean otso", emakumearen aurkako indarkeria hizpide duen antzerkia

Emakumeen aurkako indarkeria ez da urruti gertatzen den zerbaite. Gure inguruan ere ematen den fenomeno da. Horregatik, interesgarria da Usurbilgo Udaletxeko Ongizatea, Emakumea eta Gizarte Politikaz erbitzuak antolatu duen antzerki saioa. Hori bezain interesgarria, antzezlanaren eta gero osatuko den mahaingurua.

Tratu txarren atzean dauden alderdi psikologikoak ezagutzeko, Enma Larretaren testigantza emango da mahainguruan eta Jaione Juaristi psikologoaren adierazpenak ere entzun ahal izango dira. Gogoan izan, ostiral honetan (ekainak 13), arratsaldeko 18:00etan Sutegin.

Lehenik antzerki saioa, ondoren

mahaingurua. Enma Larretak jasandako erasotik abiatuta, beste hamaika emakumek jasandako erasoei eta hauen bizipenei ahotza eman nahi die "Kalean uso, etxean otso" antzezlanaren inguruko mahainguruak. Musika, dantza eta zuzeneko testigantzek hausnarketa eta eztabaida sortuko dute; horrez gainera, pentsarazteko izango diren irudi, ideia eta sentimenduak adieraziko dira bertan. Maitasunaren ederrenetik, irainen zulora jaitsiarazi eta tratu txar fisikoaren oinazeetan murgildu arte.

Sarrerak kiroldegian salgai

Antzerki emanaldirako aukeratutako esaera zaharrak, "Kalean uso, etxean otso", egoera mingarri hau ondo baino hobeto adierazten du.



GUSTURA ARITU ZIREN HAUR HEZKUNTZAKO IKASLEAK

Ikuskizun honen bitartez hausnarketari tarte eman nahi zaio, gizarteak halako egoera eta jarrerak normaltzat har ez ditzan, eta errotik ateratzeko.

Sarrerak Oiardo kiroldegian daude salgai, euro batean. Usurbilgo Udaletxeko Ongizatea, Emakumea eta Gizarte Politika zerbitzuak antolatu ditu antzerkia eta mahai-ingurua.

Ikasturte amaierako kontzertuak

Datorren astean amaituko da Zumarte Musika Eskolaren ikasturtea. Eta nola ez, musika saioekin amaituko da. Sutegiko auditorioan arituko dira talde instrumental ezberdinak eta musika txokoko ikasleak, baita abesbatzak ere.

EKAINAK 16 ASTELEHENEA. Talde Instrumentalen kontzertuak, Sutegin, 19:00etan.

EKAINAK 17 ASTEARTEA. Musika Txokoko ikasleak eta abesbatzak Sutegin, 18:30ean. Nabarmentzekoa "Kitete Shindoren Semea" obra (Afrikar ipuin batetik lortua). Musika:



Iñaki Tolaretxipi. Ideia eta testua: Ainara eta Leire Garcia.

EKAINAK 18 ASTEAZKENA. Talde Instrumentalak Sutegin, 19:00etan.

EKAINAK 19 OSTEGUNA. Musika txokoko ikasleak. Udarregi ikastolan, 17:15ean.

Datorren astean, Gure Pakeako Batzar Orokorra

Kargua utzi duen Usurbilgo Jubilatuen Batzordea urte bat baino gehiago egon da hautagaien aurkezpenaren zain, baina boluntario eta bazkide berriak bilatzea lortu du batzorde berria ostazeko.

Batzarra datorren ekainaren 17an asteartea egingo da arratsaldeko 16:00etan Udarregi ikastolan, lehendakari berria eta bere taldea aukeratzeko, estatutuek hala aginduta.

Gaiak hauek izango dira: lehendakaria aukeratzeko; galderak eta eskaerak.

CLIMATA-T
klimatizazio orokorra

☎ 687 858 390
climata_t@yahoo.es

Industri eta iragarki
SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA

OSU

943 371 954
UGALDEA POL.36-2-USURBIL

ALIPROX

Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

Denboraldi ona osatu dute eskubaloi taldeek

Sasoian onen da eskubaloia. Hala adierazi digute Usurbil KE eskubaloi taldeko ordezkariak: "emaitza aldetik neskek aurretik jarritako helburuak bete dituzte. Mutiletan, berriz, jarritako helburuetatik nahiko gertu ibili gara". Mutiletan, helburua Euskal Ligatik gertu ibiltzea zen, eta ia azken jardunaldira arte borrokan ibili dira postu hori lortzeko. Nesketan ere, helburua Euskal Liga jokatzeko zen eta Usurbil KEko historian, lehen aldiz jokatu du emakume talde batek Euskal Liga.

Kadete mutilak

Liga Txapelketan bigarren geratu dira eta Kopa Txapelketan, herriko mutilak izan ditugu garaile. Emaitza aldetik, oso ongi. Hala ere, emaitzarik onena taldean bertan izan den giro jatorra eta lanerako gogoia izan dira, asistentzia oso ona izan delarik.

Kadete neskek

Gipuzkoako Liga Txapelketan hirugarren geratu dira eta Euskal Ligan laugarren, azken honetan, bigarren itzulia ederra osatuz. Kopa Txapelketan ere goiko postuetan ibili dira. Asistentzia aldetik oso ona izan da jokalarien portaera. Taldeko giroari dagokionez, denboraldian zehar gorabehera batzuk izan dira, entrenatzaile aldaketa barne. Hala ere, joko mailari begiraturaz, jokalaria batzuk aurrerapauso nabarmena eman dute.

Jubenil mutilak

Talde honek egindako lanarekin ere gustora daude Usurbil Kirol Elkartearen. Denboraldi hasieran zenbait zalantza zituzten, taldea osatzeko jendez juxtu. Honen ondorioz, taldea osatzeko inoiz eskubaloian ibili gabeko jokalaria hartu behar izan zituzten. Liga hasieran nahikoa maila juxtua eman zuten, baina goraka joan da talde honen jokoa eta zenbait partidatan maila oso ona ematera ere iritsi dira. Ligan 5. postua eskuratu dute. Aipatzekoa da talde honetan izan duten giro ona ere. Kopan, asistentzia



GIPUZKOAKO TXAPELKETAN HIRUGARREN ETA EUSKAL LIGAN LAUGARREN IZAN DIRA KADETE MAILAKO NESKAK.

aldetik, pixka bat jaitsi dira eta horregatik emaitzak ez dira hain onak izan.

Jubenil neskek

Klubeko taldeen artean, aurten izan diren emaitzarik onenak lortu dituzte jubencil neskek. Aukeran gutxi ziren jokalaria, baina aritu direnak maila bikaina eman dute. Gipuzkoako Ligan eta Euskal Ligan bigarren sailkatu dira, Zarauzko taldea bakarrik izan dute bi txapelketa hauetan aurretik. Espainiako Txapelketako sektorea ere jokatu dute Kantabrian eta bertan laugarren sailkatu ziren. Azken hau, jokalarientzat oso esperientzia polita izan delarik. Gainera, Gipuzkoako Kopa ere irabazi dute, denboraldiari amaiera borobila emanez. Talde honen balio handiena beraien artean izan duten giroa eta jarri duten gogoia izan da, horrek gero emaitza ederrak ekarri ditu.

Senior mutilak

2. Nazionalera igotzeko jarritako helburua ez da bete, baina bi talde osatu ziren eta eskubaloian jokatzeko gogoia zuten herriko gazte denak jokatzeko aukera izan dute. Lehen taldeari dagokionez, jokoaren irregulartasunean egon da giltza. Hurrengo urteetan, aurten ikasitakoa martxan jartzeko aukera izango dute. Entrenamenduetako asistentzia berriz, denboraldi hasieran oso ona izan zen eta gero,

lesioak, lan arazoak, ikasketak tarteko, nahikoa jaitsi da. Bigarren taldeak ere orokorrean maila ona eman du, asistentzia nahiko ona, jarrera ona... Eta helburua bete du; lehen taldeari lagundu eta zenbait gazteei eskubaloian jokatzeko aukera ematea.

Larunbat honetan, eskubaloi festa ederra

- 15:30 Kadete mutilak, guraso eta entrenatzaileen aurka.
- 16:00 Jubencil mutilak, kadete mutilen aurka.
- 16:30 Guraso eta entrenatzaileak, jubencil mutilen aurka.
- 17:00 Kadete neskek, lehen jokatzeko zuten nesken aurka.
- 17:30 Jubencil neskek, kadete nesken aurka.
- 18:00 Lehen jokatzeko zuten neskek, jubencil nesken aurka.
- 18:30 Senior 2 - Beteranoak.
- 19:00 Senior 1 - Senior 2.
- 19:30 Senior 1 - Beteranoak.

Afaria 21:30ean izango da, Saizar sagardotegian. Zuzendaritzaren asmoa, urtero afaltzeko lekua aldatzea da. Aurten Saizarren egitea erabaki da. Menua helduek 25 euro, gazteek 19 euro (18 urtetik behera).

Txartelak ekainaren 7 arte zeuden salgai herriko tabernetan.

Datorren astean hasiko dira kirola eta emakumea uztartuko dituzten jardunaldiak

Euskadi eta Kubako emakumezkoen judo selekzioen topalekua izango da Oiardo kiroldegia ekainaren 21ean. Hitzordu horren haritik, emakumea eta goi mailako kirola lotzen dituen jardunaldiak antolatuko dituzte hilaren 18tik 23ra. Prestakizunetan, elkarlanean aritu dira, Udako Kirol Patronatua eta Udaleko Ongizatea, Emakumea eta Gizarte Politika zerbitzua.

Jaioterria bi hilabeterako atzean utzi dute, Pekingo Olinpiar Jokoetan parte hartuko baitute uda honetan. Gainera, ziurrenik ez dira etxera itzuliko dominarik eskuratu gabe. Kirol hitzordu garrantzitsua horren aurretik ordea, Usurbila dator, Kubako emakumezkoen Judo Selektzioa.

Euskadi-Kuba emakumezko selekzioen judo topaketa Oiardo kiroldegian ospatuko da, ekainaren 21ean. Baina saio horretatik haratago joango da aurtengo ekimena. Hain zuzen, Euskadiko selekzioarekin lehiatu baino hiru egun lehenagorako jada Usurbilen izango dira Kubako kirolariak. Topaketa eguna iritsi artean, Oiardo kiroldegian entrenatzen ariko dira. Haien prestaketa lanak irekiak izango dira, edo nork kiroldegira saioak ikustera gerturatu ahal izango du.

Kubako selekzioak Usurbilen egingo duen egonaldia baliatuta, Udako Kirol Patronatua eta Udaleko Ongizatea, Emakumea eta Gizarte Politika zerbitzuak emakumea eta goi mailako kirola uztartuko dituen jardunaldiak antolatu dituzte.

Pisu handiko bi selekzio, aurrez aurre

Aipatu bezala, ekainaren 21ean, 18:00etik aurrera punta puntako bi selekzioen aurrez aurrekoa ikusi ahal izango da kiroldegian. Urte askotan txapelduna izan eta aurten, txapeldunorde postua eskuratu duen Kubako Selektzioa alde batetik. Bestetik, Euskadiko Selektzioa, ia erdia, Usurbilgo Judo Taldeko kideez osatua. Herriko kirol taldea Espainiako klubaren artean txapelduna izan dela ezin ahaztu. Inolako zalantzarik gabe, emakumezkoen bi selekzioek eskainiko duten judo saioa ikusgarria izango da.



EKAINAREN 21EAN, EUSKADI-KUBA JUDO TXAPELKETA JOKATUKO DA.

EKAINAK 18, ASTEAZKENA

10:00-13:00 Goi mailako kirolari buruzko hitzaldi teknikoak Sutegin: "Prestakuntza fisikoaren garapena 15 urtepekoetatik seniorretara, epe luzera begirako plangintzaren garrantzia. Programa teorikoa". Hizlaria: Raquel Hernandez.

19:30-21:30 Kubako emakumezko judo selekzioaren saioak kiroldegian.

EKAINAK 19, OSTEGUNA

10:00-11:30 Hitzaldia Sutegin: "Prestakuntza fisikoaren garapena 15 urtepekoetatik seniorretara, epe luzera begirako plangintzaren garrantzia. Programa praktikoa". Hizlaria: Raquel Hernandez.

12:00-13:30 Aurreko saioaren adibide praktikoa kiroldegiko pistan.

19:30-21:30 Kubako emakumezko judo selekzioaren saioak kiroldegian.

EKAINAK 20, OSTIRALA

10:00-13:00 Hitzaldia Sutegin: "Entrenamenduaren mediku kontrola proba espezifikoa". Hizlaria: Reynaldo Chavez, Kubako selekzioko medikua.

17:00-19:00 Mahai ingurua Sutegin: emakumeen kirola.

19:30-21:30 Kubako eta Euskadiko emakumezko judo selekzioak kiroldegian.

EKAINAK 21, LARUNBATA

18:00-19:30 Euskadi-Kuba emakumezkoen judo topaketa Kiroldegian.

EKAINAK 23, ASTELEHENA

10:00-13:00 Hitzaldia Sutegin: Kubako emakumeen kirol egoera. Pentsamenduaren kontrola eta judoaren

estrategiak. Hizlariak: Ronaldo Beitia eta Juan Martinez Mesa, Kubako olinpiar selekzioaren entrenatzailea eta psikologoa, hurrenez hurren.

Antolatzaileak: Udako Kirol Patronatua eta Udaleko Ongizatea, Emakumea eta Gizarte Politika zerbitzua.

Asteburuko jardunaldia

EKAINAK 13 OSTIRALA, 19:00
Usurbilgo frontoian final-laurdenak Jubenilak
Oiarzabal-Uranga (Andoain)
Lizarribar-Barberia (Bidegoian)

Nagusiak
Erroizenea-Aranalde (Añorga)
Santxo-E.Galarraga (Usurbil-Orio)

EKAINAK 14 LARUNBATA, 10:30
Usurbilgo frontoian final-laurdenak Jubenilak
Zabaleta-Martin (Goizueta)
Madariaga anaiak (Baztan)

Kina-Biain (Zumarraga)
Otamendi-Murgiondo (Azpeitia)

Nagusiak
Azcarate-Iragi (Huarte)
Onsalo-K.Galarraga (Bidegoian)

EKAINAK 15 IGANDEA, 10:30
Agiñako frontoian final-laurdenak Jubenilak
Asteasuinzarra-Araico (Zaramaga)
Xabi-Perez (Zaramaga)

Nagusiak
Iribar-Katalina (Zumaia-Usurbil)
Alegria-Azanza (Ibero)

Oiaga-San Sebastian (Hernani)
Arraztoa-Landiribar (Burlata)

Bukatu da ikasturtea Lasarte-Usurbil institutuan



Amaitu da ikasturtea Lasarte-Usurbil institutuan. Aurreko ostiralean, diploma banaketa egin zuten. Esther Urrutia zuzendariak gidatu zuen ekitaldia. Ohiko diploma banaketaz gain, ohorezko matrikulak ere banatu zituzten, merezimendu gehien bildu dituzten ikasleen artean:

Angel Rodriguez Matesanz Lasarte-Oriakoa, Maria Montero Sistiaga Zubietakoa eta Garazi Torrealdei Gorriti Usurbilgoa.

Ekitaldiaren amaieran, bertaratutako ikasle, guraso eta irakasleek institutuak eskainitako luntxa dastatzeko aukera izan zuten.

Erraustegiaren kontrako koplak

Erraustegi bat jarri nahi digute orain, baina hori ez zaigu aterako dohain.

Erraustegia denez guretzako kalte, Usurbil guztiarentzat izango da kolpe.

Erraustegi honek gu erotuko gaitu, gaixotasun ugari ekarriko ditu.

Natura hiltzeko era izango lizake, barazkirik jan gabe egun eta aste.



Udarregi Ikastola, Usurbil-5A

Birziklatzen hasteko garaia badugu, zaborra egunero bereiztuko dugu.

Ez jarri horrelakorik Zubietan mesedez, ozen esaten dugu Erraustegirik EZ!!

Eguneko goardiako farmaziak

Ekainak 12, osteguna
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Ekainak 13, ostirala
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Ekainak 14, larunbata
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte
Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil*

Ekainak 15, igandea
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Ekainak 16, astelehena
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Ekainak 17, asteartea
Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Ekainak 18, asteazkena
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Ekainak 19, osteguna
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Ekainak 20, ostirala
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Ekainak 21, larunbata
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil*

Ekainak 22, igandea
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Correa Farmazia (22:00-09:00), Perkaiztegi
kalea, 8 Hernani 943 33 60 22
**Usurbilen, soilik eguerdira arte*

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN

Zubieta-Donostia

7:55* / 9:30(T) / 13:15(T)
14:35*(T) / 19:15(T)

Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazatik)
7:15* / 9:00 / 12:45(T)
13:45* / 18:45

LARUNBATETAN

Zubieta-Donostia

8:15(T) / 12:45
15:15(T) / 21:35(T)

Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN

Zubieta-Donostia

11:25(T) / 13:30(T)
15:30(T) / 21:35 (T)

Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazatik)
11:00(T) / 13:00(T)
15:00(T) / 21:00 (T)

T: Autobus aldaketa beharrezkoa da
*: Eskola egunetan / Tf. 943 36 17 40

Agenda !

Ekainak 14, larunbata

- Hitzaldia: Sagastien zaintza udan. 9:30ean, Sutegin. Hizlaria Aitor Etxeandia, sarrera doan.

- Patxin eta potxin pailazoak. 17:00etan, Zubietako Frontoian. Plis, Plas, Txalo ta jolas 08. Antolatzailea: Noaua! Kultur Elkartea.

- "Alternatibak martxan jarri, errausketarik ez", manifestazioa 18:00etan Donostiako Boulevardetik.

Ekainak 15, igandea

- Merka2sanmarcos, bigarren eskuko azoka. 10:00etatik 14:00etara, Dema plazan. Antolatzailea: San Markosko Mankomunitatea.

Ekainak 17, asteartea

- Gure Pakearen Batzar Orokorra, 16:00etan Udarregin.

Ekainak 18, asteazkena

Atez ateko bilketa sistemari buruzko hitzaldia: Puigpunyent herriko (Mallorka) esperientzia, bertako Udaleko zinegotzi Miquel Ramonen eskutik. 19:00etan Udarregin. Antolatzailea: Udala.

Ekainak 19, osteguna

- Txan Magoa, 18:00etan frontoian. Sarrera: doan.

Ekainak 21, larunbata

- Orniturrinkus. Hotsa eta ahotsa. 22:30ean Dema plazan. Sarrera: doan.

Ostegun honetan, Udarregi ikastolako Batzar Orokorra

Udarregi ikastolak ohiko Batzar Orokorra egingo du ekainaren 12an ostegunarekin. Arratsaldeko 18:00etan, lehen deialdia; eta hala badagokio, 18:30ean, bigarren deialdiz. Batzar Orokorra Ikastola berriko aretoan egingo da (Gernika Ibilbidea 11).

Gai zerrenda

1. Aurreko ohiko batzarraren akta irakurtzea.
2. Antolaketa Orokorreko egitasmoa azaltzea.
3. Politika eta Estrategia.
4. Hezkuntza.
5. Partehartzea eta Komunikazioa.
6. Langileriaren prestakuntza.
7. Instalazioak eta Zerbitzuak.
8. Ekonomia eta Administrazioa.
9. Artezkaritza Kontseilua eta Zaintza Batzordea berritzea.
10. Akta izenpetzeko bi bazkide hautatzea.
11. Galde-erantzunak.

Webgunean, udarregi.com helbidean, deialdiaren idatzia ikus daiteke, baita Batzar Orokorreko txostena eta botoen ordezkapena egiteko beharrezkoa den agiria.



BATZARRA UDARREGI IKASTOLAN EGINGO DA, 18:00ETATIK AURRERA.

Ikastolaren Eguna, esker onez Artezkaritza Kontseiluko kideek, Ikastolaren izenean, eskerrak eman nahi dizkiete Ikastolaren Egunean antolaketa lanetan ibili zirenei.

NOAUAlra igorritako lerro hauen bidez eta Udarregi ikastolaren izenean, "eskerrak eman nahi dizkizuegu iragan den ekainaren 1an ospatu dugun Ikastolako Egunaren antolaketa gaiak bideratzen eta hauetan laguntzen nahiz parte hartzen azaldu duzuen prestutasunarengatik eta izan duzuen jarrerarengatik. Laguntza eta jarrera hauek biziki estimatuz eta berriro eskerrak emanez, jaso ezazue gure agurrik zintzoena", dio Artezkaritza Kontseiluak sinatzen duen idatziak.

Usurbil FT taldearen deialdia

Futbolean jokatu nahi duenak, ostegun honetan, ekainak 12, arratsaldeko 19:30ean Harane futbol zelaira azaldu dadila. Kadete mailatik hasi eta errejional mailako neska mutil denei zuzendua dago deialdia.

Maskota egiten laguntzeko deialdia

Santixabel jaietarako, maskota egiten dabil herritar talde bat. Lagundu nahi duenak, ostegun eta ostiraletan, 19:00-21:00 artean Ardi Beltz garagardotegi ondoko lokalera agertu besterik ez du.

Larunbat honetan, bilera Kalezarren

Larunbat honetan, ekainak 14, goizeko 11:00etan, Kalezarko Peña Pagolan auzo elkartearen estatutuak eztabaidatu eta bidezkoa bada onartzeko deialdia egin da.

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 · ASTEASU

☎ 943 69 68 52 · 620 800 186

J.ORBEGOZO
ITURGINTZA · GASA · BEROKUNTZA

BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 · 659602789

ETXEBIZITZA

- Pisua salgai Muna Lurrán, 2 logela, komuna eta egongela sukaldearekin elkartua. Oso eguzkitsua. 65m2 guztiz berriak. Altxariak barne, 250.000 euro. 688651103. Agentziarik ez
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Zubietan alokairuan pisu bat hartuko nuke urte osorako. 675709894
- Baserri bat hartuko genuke errentan bi lagunek. 656 703 814.
- Kaskoan pisu bat alokatzen dugu, garajea dauka. Abala eskatzen da. Deitu 19:00etatik 21:00ra 607582968 telefonora.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekua, sukalde, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Zubietan 75 metro karratuko etxebizitza salgai. 2 logela, sala, komun bat, trastero txiki bat eta sukalde handi bat. Kanpokaldera ematen du etxe osoak eta bizilaguntzako aparkalekua dauka. 195.000 euro. 690290981.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituen. Dena berriua eta amueblatua. 49.800.000 pta. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukalde, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukalde, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Pisua salgai Atxegalden. 4 logela, bi komun, sukalde, egongela eta trasteroa. Berriua. 51.000.000 pezeta. 696 693 710.
- Etxebizitza salgai. 86m karratu erabilgarriak + 13m karratu balkoi(eguzkitsua), 3 logela, bainua, komuna, kafetarioa, trasteroa eta igogailua. 318.000 euro. Tf: 688670561.
- Apartamentu-duplex rustikoa saltzen du partikularrak. Zubietan Elizaren ondoan dago eta etxebizitza sartzeko moduan dago. 245.000 euro. 678084020.
- Etxea salgai Kale Nagusian. 90 m. Igogailua, garajea, trasteroa. 943361383.
- Pisua salgai. Santuenean, 16 zbkia 4. pisua, 30 milioitan (negoziagarria). 667802888.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.
- Pisua alokatuko nuke Usurbilen. 661 702 708.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna, sukalde, egongela eta trasteroarekin. 685731792.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Usurbilen alokairuan hartzeko garaje baten bila gabiltza. Furgoneta bat sartzeko modukoa izan behar du. 647299299.
- Volkswagen California bat daukagu salgai. 92. urtekoa, 2400eko motorra, konpondu berria... 650004264 edo 943243379.
- Citroen Picasso Diesel salgai. 4 urte. 617 24 26 60 (Nere).
- Hiru ateko Honda Civic salgai. Beti garajean egondakoa. 620625823.
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.

LANPOSTUAK

Lan-eskaintzak

- 18 urteko neska usurbildar bat eskaintzen da uztailaren goizez edo arratsaldez haurrak zaintzeko. 621626500
- Aginaga sagardotegian zerbitzari bat behar dugu astebukaeratan lan egiteko. 943 366 710.
- Antzetan zerbitzaria behar da. Astelehenerik ostiralera, 12:00etatik 16:00etara. Nominan jartzen diona ordainduko zaio. 943 37 03 44.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 608 406 984.
- Astean 3 edo 4 egunez eta egunean 3 orduz (goizez ahal bada) pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume euskaldun baten bila gabiltza. Orduategian flexibilitatea izatea eta auto propioa izatea baloratuko da. 607233255 / 616273785.
- LH edota DBHko ikasleei klase partikularrak emateko prest egongo al zinateke? Udaregi ikastolan, lan hori betekoa luketen pertsonekin zerrenda bat osatzen ari gara. Interesatuak pasa Ikastolatik.
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta tarteka umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. 627278907.
- DBHko klase eta batez ere matematikako klase partikularrak emateko pertsona euskaldun baten bila nabil. 670573438.

Lan-eskaerak

- "Agiña Piperrak" enpresak, emakumei zuzendua. Uztailaren erdi aldera hasi eta urrira arte lana egin nahi duenak piperrak ontziratzen azaldu dadila enpresatik goizeko 9:00etatik 13:00era. Laneko orduategia goizeko 06:00etatik 14:00ak arte izango litzateke, astelehenerik ostiralera.
- Irailean hasteko eta astean hamasei orduz (ordu eta erdi goizean eta bi ordu arratsaldean), bi ume zaintzeko eta noizbehinka etxeko lanak egiteko emakume euskaldun baten bila gabiltza. 635 755 666 edo 943 314 709.
- Sukaldaria naiz, goizez egingo nuke lan,

Usurbilen bizi naiz. Autoa dut. Esperientzia asko: 669243437

- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 608 406 984.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Belarra mozteko eta fardoak egiteko zerbitzua. Tel: 607457004 Dani.
- 1,5 metroko somierra eta koltxoia salgai. 943 36 65 89 telefono zenbakian.
- Sagardo Egunean Nintendo DS lite gris bat galdu genuen bolatokia. Eskertuko da itzulzea. 943372151.
- Usurbilen edo inguruan belardiak behar dira belarra ontzeko. Tf: 607 45 70 04. 943 36 60 40. Dani.
- Musika ekipo bat salgai: mahaia, etapak, ahots efektuak... egokia talde baten lokalean jartzeko. Larra DJ 615713204.
- Euskal arrazako bi pottoka salgai: kalifikatuak eta udaberriari umea egingo dutenak. 653719176.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriei eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220925
- Martxoaren 15ean zilar kolorezko eskumuturrekoa brazaletan itxurakoa galdu nuen. Barrukaldean "uno d 50" jartzen du. 943 36 52 61
- Martxoak 9an Usurbilgo frontoian xira txurigorri bat galdu dut. 943130036.
- Otsailaren 24an Igeldo inguruan Pastor Aleman ume gazte bat galdu dugu. Bikote batek hartu zuela uste dugu. Txipa eta identifikazio plaka ere badauzka. 943210330.
- Abenduaren 4an giltzak galdu nituen giltzatarako beltz batekin. Aurkitu badituzu: 685 72 56 81.
- Usurbilgo gazte kuadrila bat gara eta lokal bat alokatu nahi genuke herrian. 943360744.
- Kotxeko aulkitxoa salgai. Maxi Cosi Priori XP. 80 euro, erdi prezioan. 652 764 620.
- Egurrezko aulkia salgai. Aritz egurrez eginikoak. 943 36 20 49.
- Bigarren eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Argazki zaharrak berriren eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net



Zorionak Eneko!
Ekainaren 15ean egingo dituzu 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partez!



Zorionak Zuhaitz!!
Ekainaren 11n gure etxeko gizontxoak lau urte bete ditu. Ondo pasa eta muxu handi bat Nahia eta etxeko denekin partez!



Zorionak!
Aurreko asteburuan amaitu zen Aitzaga Mus Txapelketa. Irudian dituzue bikote irabazleak. Zorionak denoi!

JAIOTZAK

- Adrian Gilgado Fernandez**, maiatzaren 24an.
- Julen Muñoz Sanchez**, maiatzaren 24an.
- Ane Begiristain Zuriarrain**, maiatzaren 25ean.
- Amaia Gutierrez Bustamante**, maiatzaren 25ean.
- Iñigo Almenara Erostarbe**, maiatzaren 28an.
- Narrea Algorta Erro**, maiatzaren 29an.
- Paula Vazquez Saizar**, ekainaren 1ean.
- Daniela Recio Romero**, ekainaren 4an.

Oharra: Jaiotzak, Usurbilgo Bake Epaitegitik jasotako datuak. Merkatu Txikirako mezuak, zorion agurrak, hildakoen edota jaioberrien aipamenak orri honetan ikusi nahi badituzu, deitu bulego orduetan, telefono zenbakira: 943 360 321.
E-posta: erredakzioa@noaua.com

begi kolpea

TEODORO HERNANDORENAREN BIOGRAFIA-LIBURUA

EUSKALGINTZAKO ETA ABERRIGINTZAKO
LANGILE PORROKATU, NEKAEZINAREN BIOGRAFIA

Abertzaletasun politikoan,
bertsolaritzan,
zinegintzan,
euskarazko irratigintza zein prentsan,
euskal kirolen aldeko federazioetan,
laxo eta errebotearen euskal jokoetan...

Historiak aski ezkutuan eduki duen gizon erakargarria dugu
Hernandorena, inondik ere; suhartsua, ausarta, langilea,
intuitiboa, irismen luzeko begiratuaren jabea,
jende mugiarazle eta antolatzailea...

XX. mendeko euskal herrigintzan,
gutxi kasta bereko eragileak.

LIBURUA SALGAI

ANDOAIN:
Delgado liburudenda
Ernaitza liburudenda
Stop liburudenda

LASARTE:
Ekan liburudenda

DONOSTIA:
Heintza liburudenda
Metropolis liburudenda

ARGITARATZAILE

Manuel Larramendi
Kultur Buzkuna



BABESLE




Eusko Jaurlaritza
Iturrizko Politikako
Salburuondotza



Gipuzkoako Foru
Aldundiko
Kultura Departamentua

plis plas

txalo ta jolas 08



Zubietako
frontoian:

POTXIN ETA PATXINEN
"HIRIAN ZE BERRI?"

ekaina
13
16:30h

Kaxkoa,
herriko
frontoian:
TXAN MAGOA.

ekaina
19
18:00h



Laguntzailea:



Antolatzailea: